

OUIBUS, errepidean bidaiariak garraiatzeko SNCFren enpresa filialak Irizarren aldeko apustua egin du eta Irizar i6 modeloko 40 autokar erosi ditu

Ormaiztegin, 2015eko irailaren 9an

Kopuru horri beste 36 gehitu behar zaizkio. Haiek SNCFrentzat Frantzia eta Espainia artean lan egiten duten hainbat operadoreentzat dira, guztira 76 unitate.

Eskaera osoaren barne OUIBUSek, zuzenean, Irizar i6 modeloko 40 unitate erosi ditu bere flota berritzeko. Urtea bukatzerako entregatuko zaizkie unitate horiek.

Ouibusek, bidaiariak garraiatzen dituen enpresa eta SNCFren filialak, Irizar i6a aukeratu du bere beharretara ondoen egokitzen den ibilgailua delako.

14 metro luzeko Irizar i6 autokarrak izango dira eta ergonomia, erosotasun eta konfort handieneko 57 eserleku izango dituzte, kalitate handiko zerbitzua eskaintzeko. Ibilgailuak espresak eskatutako ekipamendu estandarra erabiliz fabrikatuko dira eta aisia eta entretenimendurako ekipamendu handia izango dute: 220V eta usb sarbideak eta wifia autokarrean bertan. Gainera, autokarrean zehar kokatutako pantailek informazioa denbora errealean jasoko dute.

Segurtasuna, zerbitzua eta teknologia

Irizar i6a zerbitzu arrunt eta berezietarako gama altuko autobus balioaniztun aparta da. Ezaugarri hauengatik nabarmentzen dena: prestazioak, diseinua, aerodinamika, xehetasunen zainketa eta erosotasuna. Irizarren nortasun ezaugarriek nahasezin bihurtzen dute. Punta-puntako teknologia duen autobusa da, segurua, fidagarria eta errentagarria. Duela gutxi Irizarren egoitza nagusian ekoiztutako 2.000. unitatea entregatu izana iragarri genuen. Eta horiei Irizarren beste produkzio lantegietan saldutako i6 modeloko beste 2.000 unitate gehitu behar zaizkie.

Konpainia honekin identifikatzea nahiko genukeen balioak biltzen dituen ibilgailua da: segurtasuna, konforta, fidagarritasuna, errentagarritasuna eta diseinua; distantzia luzeko lineak ustiatzeko ibilgailu perfektu bihurtzen dute ezaugarri horiek guztiek.

Autokar hauek segurtasun sistema aktibo eta pasibo guztiak izango dituzte: ACC eta AEBS nahiz LDW sistema eta Irizar taldeko Datik enpresaren nekea antzematekoa (DFW)

2011n sortu zenetik Ouibus erreferente izan da bidaiarien erosotasunari dagokionez. Irizar i6ek SNCF espezialista den treneko erosotasun bertsua emango diete bidaiariei



Unitate hauekin Ouibusek Europan hedatzeko estrategiarekin jarraitzen du eta eskualde arteko lineatan treneko bidaiarientzako osagarri izateko kokatzen ari da, aurten liberalizatuko baita merkatua.

Irizar Autocars-Irizar taldea

Irizar Autocars, 2011n sortua eta % 100 Irizarrena dena, Irizar autokarren salmenta eta salmenta osteko zerbitzuan jarduten da. Toursen daude bai salmenta bulegoak, bai konponketa tailerrak, eta baita Irizarrek baimendutako zerbitzu sare osoaren logistika zentroa ere. Unitate hauen guztien "repair&maintenance" ere kudeatuko du.

Kalitatearekiko arduragatik eta bezeroen ondoan egoteko apustuagatik Irizar Autocars erreferentzia Premiuna da Frantzian, bezeroari bere behar zehatzen arabera produktu eta zerbitzu onenak eskaintzen baitizkio.

Irizar enpresa talde bat da, autobusak eta autokarrak diseinatzen liderra eta erreferentzia eztabaiaezina elektroniketan, komunikazioetan (ITS sistemak), makina birakari eta osagaietan eta tren sektorerako ekipamenduetan.

2.600 pertsonak osatuta, Irizar Taldeak Munduan banatuta dauden bost autokar eta autobus lantegitan garatzen du jarduera (Espainia, Maroko, Brasil, Mexiko eta Hegoafrika), eta beste bost konpainia ere badituena, bere dibertsifikazio industrialaren fruitu gisa, baita Zentro Teknologiko bat ere, epe luzera begira dagoena, ikerketa aplikatuaren prozesuan eta produktu eta sistema propioen garapenean.

500 milioi euro baino gehiagoko fakturazioarekin talde sendoa gara, bost kontinenteetako 90 herrialde baino gehiagotan presentzia komertziala duena.

Egoitza nagusia Ormaiztegin dago eta han dago Creatio ere, Irizar taldearen Ikerketa eta Garapenerako Zentroa.

1889an sortua, 125 urte baino gehiagorekin eta noiz baino sendo eta gazteago, Irizar gaur egun Talde indartsua da, geografikoki dibertsifikatua eta industrialki etengabeko hazkundera duena; markaren, teknologiaren eta iraunkortasunaren alde irmo egiten duena, eta produktu propioen alde, bai autokar eta autobus elektrikoetan, bai presentzia duen sektoreetako gainerako produktuetan.